

1 eta 0 ez da 7

Infobesitatea. Horretan murgildu garela ematen du, informazio eta estimulu artifizialez erasoturik, garuna moteldu zaigun sentazio gazi-gozo batean nahasirik bageunde bezala. Irudiek ez digute gehiago erakusten edo irakasten, beraien burua besterik ez dute erakusten. Berdin da zer kontatzen duen irudiak, ikusia izan behar du; zarrastak eraman arte.

Erreproduktzioaren garaitik (inprimategiaren aroa) difusioaren garaira pasatu gara (pantailaren aroa). Irakurle fina ez

da gehiago kritikoa, ez da filosofoa, historialaria, soziologoa edo zientifikoa. Ez. Irakurle fina algoritmo bat da. Zenbakiak finkatzen eta baieztatzen dute guztia- ren balioa, eta hari horretatik kalitatearen markoa definitzen da. Mundua 1 eta 0 artean kokatu da. Ez da beste dimentsio posibleberik. 1 eta 0 serie baten menpe.

Reality show erraldoi baten antzera, ikuspunturik gabeko

begirada lau haizeetara zabaldu da. Autofikzioa, autoestimua, autokontrola... Dena dakigula uste dugu, algoritmoen menpean goazenean, gehienetan. Bakanak ginela uste genuen, baina 1 eta 0 artean kokatu gara, besoak zabalik eta begiak dirdiratsu. Irudimenik gabeko irudiak hedatzen ditugu sare sozialetan, norbait izateko esperantza antzuak bul-

tzaturik. Errealitate baina errealego bilakatu dira gure irri faltsuak, pose artifizialak eta milioi bat bider argazkitan zabalduko paisaia zoragarriak bisitatu eta ezagutzearen us- tean bizi gara.

Horretan datza zoom kultura: erdigunea ni naiz. Perspektibaren eta infinituaren nozioak galdu egin ditugu. Eta kontsentsurako gaitasuna abandonatu dugu selfie-aren mesederako. Ni hola-koa naiz, nik horrela pentsatzen dut; eta nire argumentuek pisua galtzen badute, zoom bat egiten dut nire egoa zentro zentroan birkokatzeko, besteen perspektiba eta posible infinituak ukatuz.

Kooperazioa ezinezkoa bilakatu arte. Artista sentitzen gara arterik sortu gabe; zeren, artea sortzeko, kooperazioa ezinbestekoa baita.

Victor Hugok, *Miserableak* nobel- belan, honela zioen: «Horrek hori ekarriko du». Aro berri batean preso gaude, eta ez dakigu nola atera hortik. Ez dakit hau dena noiz hasi zen lerratzen. Hasieran menturaz. Zenbaitzuek autoaren metafora erabiltzen dute gaur egungo egoera irudikatze-ko: auto batean goaz, bidetik atera gara, eta kontrola galtzen ari gara. Baina zientzialari askok zehazten dute auto horrek azele- ragailua topean duela, gero eta bizkorrago doala, frenoak puska- tuta, amildegian behera, gauzez eta argirik gabe. Eta edozer gauza lehertu daiteke gure gizartearen autoaren aurka: idorte erral- doiak, suteak, lurrikarak, eurite- ak, pandemiak...

Nola demontre iritsi gara ho- naino? Gara diot, zeren ez du ezertarako balio norberak bere ardura bizkar gainetik kentzeak. Noski, erabakiguneetan tematu egiten dira, eta paretaren kontra jo edo amildegiaren ertzean egon arren, gasolina gehitzen zaio au-

toari, oraindik bizkorrago joan dadin. Kontsumorako laguntzak, mundu mailako ekonomiaren sustatzea, abiadura handitzen duen tresneriaren suspertzea (5Ga, AHTa, autogintza, platafor- ma digitalak, *online* komer- tzioa...). Ematen du amesgaizto batean garela... Gidariak erabaki gero eta arraragoak hartzen dituzte, eta eskuko frenoak ez du inork tiratu nahi. Besteak egin beza. Alta, esku frenoak begien bistan dugu denok. Baina gero eta bizkorrago goaz, eta, beldur garenez azken putzak izateaz, gure autoa besteekin bat erama- ten dugu, suzko amildegiara bada ere.

Artearen mundua ez da bereiz- ten bere egin moldeetan. Erraz esaten dugu: «Mundua aldatu behar da! Orain!»». Ados. Baina nork aldatu behar du? Nork har- tuko du ardura, zama, eta ondo- rioz batzuetan hartzen den mina, desilusioa, nekea... Elkarrekin has gaitzen, ez? Eraiki ditzagun behar ditugun tresnak eta balia- bideak, mundua eraldatzeko. Eta aske bizitzeko, gure mundua bir- pentsatu dezagun. Askatu behar dugunak guhaur ere bagara, ez?

Ekar dezagun gure altxorra hur- bilenengana: gure obren gaiak, egite jakitateak, sareak, baliabi- deak... Mintza gaitzen gure au- zoaz, gure senideaz, orain eta he- men. Eraiki ditzagun gure ere- duak, geldi dezagun gu suntsitzeko erabiliak diren tres- nen elikatzea, eta ureztatu ditz- agun euskal guneak: euskal esko- lak, kulturguneak, tabernak, he- rriak... denak, iparretik hegora, mendebaldetik ekialdera, diskri- minaziorik gabe, hauturik gabe, eta ekin diezaiogun. Egin, ekin eta egin, loreak gure ahoak hor- nitu ditzaten, gure hizkuntzak eskaintzen dituen altxor guzietatik harturik. Zeren guk ez badio- gu ekiten, nork egingo du? 1 eta 0 arteko pentsaera hedatzen dute- nek. Ardiz eta erdizka nahi eta behar gaituztenek.

Gure artean egin dezakegun gauzarik handiena hau dela uste dut: herri bat. Euskal zentzu za- balenean: hiria, nazioa eta popu- lua. Hots, etorkizun baten men- tura. Zenbakiak infinituak dira, eta ametsak ere bai. Haien heda- tzeko elkartu gaitzen. Gure bu- rasoez egin zuten haiena, egin dezagun gurea: 7.

berria denda

Liburuak, diskoak, DVDak, bulegoko materiala...

Egin eskariak erraz eta eroso!

Bidalketa gasturik gabe • Deskontuak BERRIALagunentzat

Berria.eus/berrialaguna/denda • (0034) 943-30 43 45

berria

Informatzeak
zenbat balio duen